



MUNDUKO MERKATARITZA

2019 urte txarra izan zen nazioarteko merkataritzarentzat

Munduko Merkataritza Antolakundeak argitaratutako informazioaren arabera, 2019an beste herrialde batzuetan saldutako produktuen balioa dolarretan %3,0 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. Jaitsiera horren zati handi bat AEBak eta Txina protagonista izan ziren merkataritza gerraren ondorioz sortu zen ziurgabetasunak azaltzen du.


Bi herrialde horiek ere muga zergen arloan hartu zituzten erabakien ondorioak jasan bazituzten ere, herrialde horietan eraginak txikiagoak izan ziren aipatutako mundu mailako beherakada baino. Zehazkiago adierazita, AEBetako esportazioak %1,2 murriztu ziren eta Txinan salmentak %0,5 bakarrik igo ziren, aurreko urteetako tasetatik urrun.

MUNDUKO MERKATARITZA

Biloi euro


URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

-%3,0




AEBETAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa




TXINAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIAKO ESPORTAZIOAK


Urte arteko aldakuntza tasa



2019an emaitzarik txarra izan zuten herrialdeetako batzuk europarrak izan ziren; izan ere, aipatutako merkataritza gerrari Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko modua (Brexit) adosteko zailtasunak eta automobilgintzaren arazoak gehitu zitzaizkion. Hala izanda, Alemaniak bere esportazioak %4,6 murriztu zituen urtetik urtera, Erresuma Batuak bereak %3,6 murriztu zituen bitartean, Espainiak galdu zuen %3,8ko balioaren antzekoa baita. Frantziaren emaitza ez zen hain negatiboa izan (-%2,1). Europatik kanpo deigarria izan zen Japoniako esportazioen beherakada ere, %4,4ra iritsi baitzen.


FRANTZIAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa




JAPONIAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa




ERRESUMA BATUKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.